

Makina bat kontu

Joxerra Aizpurua

etol ogi a Gautxoriek txoriak ere jaten dituzte

GAUTXORIEN INGURUAN makina bat film, gehienak beldurgarriak, egin izan dira. Antza, gautxori mota batzuek txoriengan ere beldurra sortzeko arrazoiak badaude Europako zientzialari talde batek egindako ikerketa baten arabera.

2001. urtean sortu zen susmoa, ikerlari espainiar batzuek txorien lumak topatu zituztenean gau saguzar erraldoiaren (*Nyctalus lasiopterus*) habian. Lehen ustearen arabera, lumak ausaz azaldu zirela zabaldu zen, hau da, txori migratzaileen eremuetatik saguzarrak igarotzean airean zeuden lumak euren gorputzean itsatsi eta habiraino eraman zituztela nahi gabe. Hala ere, ikerlari gutxi batzuek adierazi zuten saguzarrak



Saguzar erraldoia, *Nyctalus lasiopterus*.

haragijaleak ere bazirela eta habian topatutako lumak harrapatutako txorienak zirela.

Urteetan iritzi kontrajarriak sortu ditu afera honek eta kontua argitzeko ahaleginak traba latza zuen gainera: nola detektatu edo grabatu gauez eta gainera airean bizi diren animalien ohiturak?

Carlos Ibañezen gidaritzapean Espainiako eta Suitzako ikerlari taldeak saguzarren odolaren analisisian oinarritu du ikerketa, jaten dugunak markak uzten baititu odolean. Zehatz-mehatz "isotopo egonkorren" metodoa erabili dute. Horren bidez, izaki biziek elikadura-katean duten lekua ezagutu daiteke, ehunekotan karbono eta nitrogeno-maila neurtuz. Saguzarren harrapakinak diren ornogabeek askoz ere isotopo gutxiago dituzte txoriek baino eta hori odolean islatzen da.

Espainiako hegoaldean bizi diren saguzar erraldoien odol-laginak martxotik urria

Osasuna

JABIER AGIRRE

Kontuz, gripearen ondoren pneumonia etor daiteke-eta

ESPAINIAKO Pneumologia eta Kirurgia Torazikoko Elkarteak ohartarazi duenez, pneumonia kasuak ugartu egin dira (1.000 biztanleko 3tik 14ra kasu gertatzen omen dira), eta proportzioa igo egiten da 65 urtetik gorako populazioan (50 kasu izateraino).

Iturri horrek adierazi duenez, pneumoniak pazienteen % 20-50 ospitalean ingratzea ekarriko luke. Zoritxarrez ordea askotan gaixotasuna antzeman ere ez da egiten, "pazienteak ez direlako kontziente gaitzak jota daudela; eta ez direlako medikuaren edo espezialistaren kontsultara joaten". Estatistika fidagarrien arabera, pneumoniak 20 heriotza baino gehiago eragingo ditu 100.000 biztanleko, gurea bezalako gizarte "aurreratu" batean, betiere populazio osoari begira, hau da, adin-talde guztiak kontuan hartuta. Izan ere, pneumonia baita infekzioagatikoa aurreneko heriotzakausa, eta zarpigarren lekua hartzen du diagnostiko anitzeko heriotzen artean.

Zein prebentzio-neurri har dezake herritarrak? Aurrenekoa, eta garrantzitsuena, gripearen kontrako txertoa hutsik



Pneumoniak erasandako birrikak.

egin gabe hartzea, arrisku-taldeetakoak direnen artean batez ere. Eta bestetik, pneumoniaren susmoa ez albo batera uztea, sarritan gripearen diagnostikoak itsututa, arnas aparatuko sintomei (eztula, karkaxa berde ilunak, saihetseko mina, etab.) ez baitzaie behar duten arreta jartzen. Horregatik medikuarengana joan eta auskultatzeko eskatzea ez dago soberan. Hortik gorako kontuak osagi-learen iritziaren eta azterketa medikoa-ren arabera erabakiko dira, noski.

Adituek diotenez, egunean hamar zigarro baino gehiago erretzen dituztenek edo egunero 80 gramo alkohol baino gehiago edaten dutenek (bi garagardo basokada handi, whisky edo koñak kopa baten baliokidea), gripearen kontrako txertoa hartu beharko lukete urtero. Pertsona horiez gain umeek, hirugarren adinekoek eta gaixotasun kroniko edo kardiobaskularren bat dutenek osatzen dute arrisku-taldea. Osasunaren Mundu Erakundearen ustez, datozen urteetan pneumonia-kasuek gora egingo dute, biztanleria zahartu eta transplanteak jasan dituztenak ere gero eta gehiago izango direlako.

landareak

JAKOBA ERREKONDO
mandio@zerain.com

Kirtenetik helduta



AUSTRIAN bada PKS, Pitagoras-Kepler Eskola, Schauburgerren teorien arabera egindako lanabesak bi filosofo-zientzialari

harmonikoen omenez izen hori daramana. Walter Schauburgerrek sortua, aita Viktorrek abiatutako ikerketak eta hauen lorpenak jarraipena eta zabalkundea izan zezaten. Viktor (1885-1958) baso ingeniari eta asmatzaile izan zen eta basogintza, nekazaritza, hidrologia, uraren biziberritzea, energia askeak, etab. ikertu zituen. Ingeniari adiskideek, bere asmazioak eta proposamenak ulertzeko motz, zorotzat jo eta erotexe batean garai bat pasarazi zioten.

Nekazaritzarako egin zuen proposamenetako bat lurra lantzeko lanabesena izan zen. Bere arabera, burdinazko tresnak erabilia, higadura dela-eta burdin hori pixkanaka-pixkanaka lurrean geldituko da. Burdinak landutako lurretan eragin txarra duela zioen, sakabanatutako burdina-izpiak herdoil-multzoak bilakatuko dira eta lurra azidotasun aldera makurtu. Arazo hauek saihesteko kobrez egindako lanabesen erabilera berreskuratzearen alde egin zuen. Aspaldikoa da kobrez egindako lanabesak baliatzeko ohitura; Txina, Egipto eta makina bat tokitan bada aitzur eta pala hauen berri. Gure Viktorrek ordea, burdinak ez bezala kobreak tentsio magnetikoetan eraginik ez duela zioen. Geroztik lurra eskuz lantzeko behar den edozein lanabes kobrez egina ere aurkituko dugu, ez da erraza baina topatuko duzu. Aitzur beraz bi kolpe emanez, lanabes batzuei beste elementu kimiko batzuk gehitu zizkien: urrea, zilarra, magnesioa... lanaren poderioz izpika-izpika lurrarekin nahasiz honen kalitatea hobetzeko eta gutxi bada ere landareek beharrezko dituzten elementu hauen emana ziurtatzeko. Kobrea lanean jarri eta dantzatzeko kirtena behar eta bere ustez kirten onenak eskura gozoenak, ezkizkoak alegia.



Saguzarrak sabaitik zintzilik.

bitartean hartu dira (neguan hibernatu egiten baitute), eta lagin horietan opinarrirituta ateratako ondorioa hauxe: txorien migrazioen arabera dago saguzar erraldoiaren dieta. Alegia, udaberrian ornogabeak eta txoriak jaten dituzte, udan ornogabeak batez ere eta udazkenean txoriak dira gehienbat jaten dituztenak.

Udaberrian ornogabeak eta txoriak jateak zera adierazi nahi du: txori asko hil egin dela neguan eta elikadura osatzeko ornogabeak jan behar dituela.

Beraz, harrigarria baina egia: gautxoriak haragijaleak izan daitezke. y



Saguzar aldra ilunabarrean.

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industria 1, 48160 Lesaitze-Oria
Tel: 943.37.18.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIAREN UNIBERTSOA